

# **EUSTATEN PLAN ESTRATEGIKOA 2008-2012**



Donostia-San Sebastián, 1  
01010 VITORIA-GASTEIZ  
Tel.: 945 01 75 00  
Fax: 945 01 75 01  
E-mail: [eustat@eustat.es](mailto:eustat@eustat.es)

[www.eustat.es](http://www.eustat.es)

**Euskal Estatistika Erakundea-Eustat**, euskal estatistika antolaketako erakunde zentrala da. Hona hemen bere funtzioak, besteren artean: Euskal AEko estatistika-jardueraren zuzendaritza eta koordinazioa; estatistika-eragiketa bakoitzaren –berdin dio zein den erakunde arduraduna- egitasmo teknikoari oniritzia ematea, eta emaitzen argitalpen eta zabalkundea. Gainera, lurralde-maila guztietako estatistika demografiko, ekonomiko eta sozialen sistema integratuak sortu eta mantendu egiten ditu, Euskal Estatistika Antolaketaren jarduera harmonizatuz.

**Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkari ofiziala da estatistika auzietan**, bai estatu mailan, bai nazioartean.

Eustatek **erabateko kalitatearen** eta **bikaintasunaren** aldeko apustua egin du, eta konpromiso hori betetzeko azken urteetan zenbait ekintza garatu ditu.

## Gure egitekoa

Eustat Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde autonomo administratiboa da. Kalitatezko estatistika ofiziala, objektiboa eta zientifikoko kontrastatua garatu, sortu eta hedatu egiten du, euskal herri administrazioetarako, gizarte eragileentzat eta gizarterako oro har. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika jarduera zuzendu eta koordinatu egiten du, eta estatuko eta nazioarteko estatistika arloan lankidetzan aritzen da.

Hona hemen 2008-2012 aldian iritsi nahi den helburua:

## Gure ikuspegia

Eustatek Euskadiko **erreferentziako estatistika bulegoa** izan nahi du, estatistika informazioaz hornitzen liderra; baita ere haren metodologiengatik ezagutu eta estimatua, eta produktuak eta zerbitzuak erabiltzailearen beharretara behar bezala egokitzeagatik.

Hona hemen bere **helburuak**:

- Gizarteak erakundeaz dakiena areagotu.
- Erabiltzaileak gero eta gusturago egotea eskura jarritako informazioaz
- Giza talde prestatua eta profesionalki kualifikatua sustatzea
- Beste erakundeekiko koordinazioa eta lankidetzaren hobetzea
- Gizartearekiko konpromisoa sustatu
- Europako Estatistikaren Jardunbide Egokien Kodearen esparruan estatistika sistemaren kalitatea hobetzea.

Hona hemen **ikuspegia** gauzatze aldera, gure langileen erreferentziako balioak:

## Gure Balioak

- Burujabetasun profesionala
- Erabiltzaile eta bezeroenganako orientazioa: egokitasuna
- Talde-lana.
- Haren produktu eta zerbitzuen kalitatearekiko konpromisoa
- Isilpekotasuna
- Berrikuntza
- Lankidetzatza

2008-2012 aldian Eustaten **bost lerro estrategikoak** Ikuspegia betetzen zentratuta egongo dira. Hona hemen lerrook:

1. Interes-taldeekiko hurbiltze eta egokitzea
2. Produktu bere-berea eta kalitatezkoa sortzea
3. Beste erakundeekiko itun estrategikoak ezartzea
4. Pertsonen prestakuntza eta gaitasunak
5. Gizartearekiko konpromisoa

Bost lerro estrategiko hauek 28 eragiketa-adierazleren segimendua eginez kontrolatuko dira.


**Erabateko kalitatearen eta bikaintasunaren** estrategietako elementu zentraletakoa erakundearen **prozesuen mapa** ezartzea da Erakundearen jarduerak ordenatzea, prozesuen arteko elkarreraginen argitzea eta egindako jarduera guztiei baliabideak esleitzea ahalbidetzen ditu prozesuen mapak.

Hona hemen Eustaten helburuen lorpena ahalbidetuko duen prozesuen mapa:

# EUSTATEN PROZESUEN MAPA

Euskal  
Estatistika  
Plana

Legebiltzarra, Jaurlaritza, Hiritarrak, Gizarte Eragileak



Legebiltzarra, Jaurlaritza, Hiritarrak, Gizarte Eragileak